



**AGINDUA, SEGURTASUNeko SAILBURUARENA, JENDAURREKO IKUSKIZUNEN
ETA JOLAS JARDUEREN ABENDUAREN 23KO 10/2015 LEGEA
ERREGELAMENDU BIDEZ GARATZEN DUEN DEKRETUA BIGARRENEZ
ALDATZEKO DEKRETU-PROIEKTUA ALDEZ AURRETIK ONARTZEA
ERABAKITZEN DUENA.**

Exp. DNCG_DEC_5650/25_07

ELN-DCG-014/2025-LII

Segurtasuneko sailburuaren 2025eko azaroaren 5eko Aginduaren bidez, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legea erregelamendu bidez garatzen duen otsailaren 5eko 17/2019 Dekretua bigarrenaz aldatzeko dekretu-proiektua egiteko prozedura hastea erabaki zen.

Testua eta arau-eraginaren azterketari buruzko memoria eginda, bidezkoa da, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legeak 15. artikuluan ezarritakoaren arabera, aldeaz aurretik onartzea; dagozkion entzunaldi- eta kontsultazapideak egin aurretik.

EBAZTEN DUT:

LEHENENGOA.- Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duen otsailaren 5eko 17/2019 Dekretua bigarrenaz aldatzeko dekretu-proiektuaren testua aldeaz aurretik onartzea.

Bigarrena.- Dekretu-proiektuaren prozedura izapidetzen jarraitzeko agintzea, hori onartzeko hasiera-aginduan eta ekainaren 30eko 6/2022 Legean ezarritako izapideen arabera.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren data.

Bingen Zupiria Gorostidi

Segurtasuneko sailburua



XX/2025 DEKRETUA, XXXXaren XX(e)koa, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duen Dekretua bigarrenez aldatzen duena.

Jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legea Euskal Autonomia Erkidegoak ikuskizunen arloan duen eskumen eksklusiboa garatzeko eman zen.

Lege hori garatzeko, 17/2019 Dekretua eman zen, otsailaren 5ekoa, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duena. Era berean, azken hau uztailaren 23ko 119/2019 Dekretuaren bidez aldatu zen.

Legeak hainbatetan izan du gizabanakoen sarbidea zaintzeko eta kontrolatzeko betebeharrak erregelamendu bidez garatzeko joera. Hala, bertan adierazitakoaren arabera, ikuskizunak, jarduerak eta establezimenduak zehaztu egin behar dira beren izaeragatik, edukieragatik edo herritarren bizikidetzan duten eraginagatik hurrengo zerbitzuak izan behar badituzte, horien bitartez bezeroen edo erabiltzaileen sarbidea kontrolatzeko: segurtasun pribatuko zerbitzua (segurtasun pribatuko legerian ezarritako baldintza eta betekizunekin); eta onarpena kudeatzeko zerbitzu espezifikoak, behar bezala identifikatu eta egiaztatutako langileekin.

Legezko bereizketa horrek agerian utzi du segurtasun-zerbitzuen eta onarpen-zerbitzuen arteko bereizketa. Araudiak, bereizketa hori jasota, onarpen-zerbitzuko langileen ezaugarriak zehaztu eta haien eginkizunak zerrendatu ditu. Hona hemen: gizabanakoak normaltasunez sartzen laguntzea; legezko baldintzak edo antolatzaileak ezarritakoak betetzen ez dituztenei sartzen ez uztea; baimendutako edukiera gainditzen ez dela kontrolatzea; segurtasun pribatuko zerbitzuei edo Poliziari gizabanakoak sartzean izandako gorabeheren berri ematea; dibertsitate funtzionala dutenei sartzen laguntzea; jarduera lokaletik kanpo burutzen ez dela ziurtatzea; ate bikoitzeko atari akustikoen funtzionamendua zaintzea; ikuskapenak erraztea, etab.

Gainera, segurtasun pribatuko langileentzat ezarritako eginkizunak ezin izango dituztela bete zehaztu da. Ideia hori finkatu da segurtasun-zaintzaileei edo, hala badagokio, Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Kidegoei berehala jakinarazteko betebeharrarekin, jarduera edo ikuskizun bat garatu bitartean ordena publikoa eragotzi denean.

Onarpen-kontrola egiten den guztietan, onartua izateko eta bertan egoteko baldintzen arabera sarrera baimenduta edo ukatuta, eginkizun horiek betetzeko gaitutako eta erregistratutako langileak egon beharko direla interpretatu dugu, izan ere, erregelamenduak ez ditu berariaz zehaztu zerbitzu hori izan behar duten establezimenduak, ikuskizunak edo jarduerak. Horregatik, beharrezkotzat jo da mugatzea zerbitzu hori nahitaezko izango duten establezimendu publiko, ikuskizun eta jolas-jarduerak.

Aipatutako Dekretuaren 61. eta 65. arteko artikuluetan, (*“Aretozaintzako eta Segurtasuneko Baldintzak”* izenburuko VII. kapituluaren barruan), eginkizunez gain, honako hauek ere arautzen dira: eginkizunak betetzeko modua; identifikazioa eta gaikuntza; onarpen-zerbitzuko langileen erregistroa; eta bertan inskribatzeko baldintzak; eta gaikuntza errebokatzea.

Duela gutxi, beharrezkotzat jo da indarrean dagoen araudia berrikustea eta, halakorik eskatuko balu, dagozkion aldaketak egitea. Ondorio horretara heldu gara zenbait gertakariren harira, izan ere, horien bitartez agerian geratu dira onarpen-zerbitzuetako langileei aplikatu beharreko egungo erregulazioan hobe litezkeen alderdiak. Helburua

alderdi horiek zuzentzea da, haien ezarpenean izandako eskarmentuak erakutsitakoaren arabera.

Aldaketak ez du eraginik izango onarpen-zerbitzuko langileen izaeran; hala ere, segurtasun handiagoa emango du, gaikuntza kautelaz eteteko aukera emango duelako, errebokatze prozedura bat hasiz gero. Horrela, araua hautsi edo zigor arloari dagokion legez kontrako egintza egin duenak eginkizun horiek betetzen jarraitzea eta, beraz, jokabide horiek gehiagotan erakutsi ahal izatea eragotzi nahi da. Horretarako, gaikuntza errebokatze eta, horren ondorioz, erregistroan baja emateko prozedura arautu da. Gainera, prozedura horretan harremana berehala eteteko aukera sartu dute. Era berean, prozeduran ezarri da horren hasiera eta ebazpena -baita etena ere, hala badagokio- jakinarazi behar zaizkiola errebokatzea eragin duen arrazoia izandako herriko udalari. Bestetik, errebokatzea ekar dezaketen portaerak edo gertakariak detektatzen dituen udalak horien berri eman beharko dio horretaz arduratzen den organoari.

Halaber, onarpen-zerbitzuko langileen funtzioak bete ahal izateko baldintzak birdefinitu eta argitu dira: gaikuntza espezifiko eta erregistroa, baita gaikuntzaren indarraldia ere. Era berean, iraungitzea eta gaikuntzaren etena sartzeak berekin dakar onarpen-zerbitzuko langileen erregistroan inskribatuko diren datuak aldatzea.

Bestalde, agerian geratu da jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren arloan kontrolatzeko, ikuskatzeko eta zehatzeko ardura duten administrazio eskudunen arteko komunikazio-kanalak indartu behar direla, gaikuntza errebokatzea eragin dezaketen jokabide desegokiak ezagutarazteko eta partekatuak izateko asmoz, halakoak errepika ez daitezen. Ikuskapen-programak egitea eta horiek jakinarazteko aukera aurreikusi da dagoeneko, aldatu nahi den Dekretuaren III. eranskinean jasota dagoenaren arabera. Horretarako, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Euskal Kontseilura bidaliko da ikuskapenen urteko egutegia. Horiek betetzea sustatzeko eta bermatzeko, honako hauek sartu dira: txosten-eredu normalizatua; aurrekoa aurkeztu ezean egin daitekeenaren aurreikuspena; eta Kontseiluaren erantzuna, detektatutako ez-betetzeak eta jardunbide ezegokiak jasotzeko memoria baten bidez.

Honenbestez, Segurtasun sailburuaren proposamenez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari entzunda, dagozkion nahitaezko txostenak eginda, eta Gobernu Kontseiluak XXXXeko xxxxaren xx(e)(a)n egindako bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT

Lehenengo artikulua. *Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzeko erregelamendua onartzen duen otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuaren 61. artikulua, «Onarpen-zerbitzuko langileen gaikuntza eta erregistroa» aldatzea.*

61. artikuluan 3. apartatua gehitu da. Horrela geratu da idatzita:

«61. artikulua. - Onarpen-zerbitzuko langileen eginkizunak.

- 1.- Onarpen-zerbitzua behar bezala identifikatuta dauden pertsonen osatzen dute; pertsona horiek establezimenduen titularraren edo jendaurreko ikuskizunen edo jolas-jardueren antolatzaileen mende egongo dira, eta funtzio espezifiko hauek dituzte:

- a) Pertsonak lokalean edo instalazioan normaltasunez sartzen direla ziurtatzea.
 - b) Lokalaren edo instalazioaren titularrak edo jendaurreko ikuskizunen edo jolas-jardueren antolatzaileak ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten pertsoneri sarrera galaraztea, onarpen-eskubideari jarraikiz.
 - c) Ixteko muga-ordutik aurrera, edota, hala dagokionean, jendaurreko ikuskizuna edo jolas-jarduera hasi ostean, ikus-entzuleei sartzen ez uztea, baldintza espezifikoek jarraikiz.
 - d) Bertaratutakoek sarrera edo eserlekua erosten dutela kontrolatzea, hala dagokionean;
 - e) Adingabeen sarrera-mugei buruzko araudia betearaztea, eta, horretarako, lokalera edo instalaziora sartu nahi duten pertsonen adina egiaztatzea, nortasun-agiri ofizialak erakutsaraziz.
 - f) Baimendutako gehieneko edukiera inoiz ere ez dela gainditzen kontrolatzea eta, ondorioz, ikus-entzule gehiagori sartzen ez uztea.
 - g) Segurtasun pribatuko langileei, halakorik bada, berehala jakinaraztea, sarreretan gertatzen diren asalduren inguruan. Segurtasun pribatuko zaintzailerik ez balitz, Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Kidegoak ipini beharko dituzte jakinaren gainean berehala, haien eskumenen esparruan.
 - h) Funtzio horiek egiten dituzten pertsoneri ikuskaritza edo erregelamenduzko kontrolak erraztea.
 - i) Desgaitasuna dutenak irisgarritasun-, berdintasun- eta inklusio-baldintzetan lokal edo instalaziora sartu eta ikuskizunez goatzeko aukera izango dutela bermatzea.
 - j) Jendaurreko ikuskizuna edo jolas-jarduera lokalaren edo instalazioaren barruan egiten dela ziurtatzea, ohartaraziz debekatuta dagoela janari-edariak aldean dituztela bide publikora irtetea.
 - k) Ate bikoitzeko atondo akustikoek behar bezala funtzionatzen dutela zaintzea.
 - l) Sarrera-mugatze orokorreko kasuren batean dauden pertsoneri lokalean edo instalazioan sartzen ez uztea.
- 2.- Titulartasun publikoko establezimenduetan herritarrak informatzeko eta instalazioak mantendu eta kontrolatzeko funtzioak bere esku dituzten udal langileek beteko dituzte manu honetan aurreikusitako funtzioak, gaikuntza jasotzeko edo onarpen-zerbitzuko langile gisa erregistratzeko beharrik gabe.
- 3.- Aurreko apartatua alde batera utzi gabe, hurrengo kasuetan onarpen-zerbitzuko langile gaituak eta erregistratuak eduki beharko dira:
- Establezimenduaren, jendaurreko ikuskizunaren edo jolas-jardueraren sarreran sarbide-kontrola dagoenean.

- Segurtasuna zaintzeko zerbitzua izatea nahitaezkoa den kasuetan.
- Gaikuntza-tituluan hala ezarri bada, betiere establezimendu publikoak irekitzeari, aldi baterako instalazioei eta jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak antolatzeari buruzko autonomia edo udal arloko araudiarekin bat etorrita. Horretarako, haien ezaugarri espezifikoak kontuan hartuko dira, esate baterako: lokalaren leku-kopurua; ordutegia; ikuskizun-mota; jardueramota; onarpen-baldintza espezifikoak; edo herritarren arteko bizikidetzan eragina izan dezakeen beste edozein inguruabar».

Bigarren artikulua. *Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzeko erregelamendua onartzen duen otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuaren 63. artikulua, «Onarpen-zerbitzuko langileen gaikuntza», aldatzea.*

Aldatu da 63. artikulua izenburua, aldatu dira 1. eta 2. apartatuak, ezabatu dira 3. eta 4. apartatuak, eta apartatu bat gehitu da, 3. apartatua izango dena. Horrela geratu da idatzita:

«63. artikulua.- Onarpen-zerbitzuko langileak gaitzea eta erregistroan inskribatzea.

- 1.- Onarpen-zerbitzuko langileek funtzio horietarako berariazko gaikuntza eduki beharko dute, ikuskizunen arloko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzak emanda, eta ikuskizunen arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzaren onarpen-zerbitzuko langileen erregistroan inskribatuta egongo dira, 61. artikuluko 2. apartatuan aipatzen den kasuan izan ezik.

Eusko Jaurlaritzaren gaikuntza espezifikoa horretarako ezarritako probak gainditu ondoren lortuko da.

Dena den, onartzen dira beste organismo publiko eskudun batzuek, organismo autonomo honetakoek edo beste batzuetakoek, estatukoek edo Europar Batasuneko beste botere publiko batzuetakoek, onarpen-zerbitzuen funtzioetan jarduteko emandako gaikuntza espezifikoak, salbu eta errebokatu badira, haien indarraldia iraungi bada edo 10 urte igaro badira jaulki ziren datatik.

Onarpen-zerbitzuko eginkizunak bete ahal izateko, aurreko paragrafoan aipatutako langileek Eusko Jaurlaritzan ikuskizunen arloko eskumena duen zuzendaritzako onarpen-zerbitzuko langileen erregistroan inskribatu beharko dute beren gaikuntza espezifikoa.

- 2.- Ikuskizunen arloko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzak aldi-aldi gaikuntza-probak antolatuko ditu Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako ebazpen baten bidez; proba horietan, teoria- eta praktika-moduluei buruzko azterketa bat edota test psikotekniko bat egingo dira. Modulu horien gutxieneko edukia dekretu honen V. Eranskinean ezarritakoa izango da.
- 3.- Gaikuntza erregistroan inskribatu eta hamar urtera iraungiko da. Onarpen-zerbitzuko langileen eginkizunak betetzen jarraitu ahal izateko, inskripzioa iraungi aurretik, gaikuntza lortu beharko da berriro, horretarako ezarritako probak eginez, eta erregistroan inskribatu beharko da».

Hirugarren artikulua. Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzeko erregelamendua onartzen duen otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuaren 64. artikulua, «*Onarpen-zerbitzuko langileen erregistroa*», aldatzea.

Aldatu dira 64. artikulua 1. apartatuko b) eta c) azpiapartatuak, eta 5. eta 6. apartatuak gehitu dira; honela geratu dira idatzita:

«64. artikulua.- Onarpen-zerbitzuko langileen erregistroa.

1. Ikuskizunen arloko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzak onarpen-zerbitzuaren funtzioak betetzeko gaikuntza espezifikoa lortu duten pertsonen erregistro bat edukiko du, non, gutxienez, informazio hau jasoko baita:
 - a) Pertsonaren identifikazio-datuak.
 - b) Gaikuntzaren eta haren iraungitzearen data eta, hala dagokionean, errebokazio-data eta hartutako kautela-neurriak.
 - c) Egindako arau-hauste administratiboak eta ezarritako zehapenak, baita gaikuntza errebokatzea eta, ondorioz, erregistroan baja ematea eragin duen beste edozein inguruabar ere.
2. Erregistro honetako datuei buruz datu pertsonalak babesteko araudian aitortutako eskubideak, hau da, datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak, baliatu nahi izanez gero, ikuskizunen arloko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzara jo behar da, bide judizialek balia daitezkeen eskubideei kalterik egin gabe.
3. Erregistro honetako datuak ezin zaizkie hirugarrenei laga, salbu eta ikuskizunen arloko eskumena duten beste administrazio batzuei beren atribuzioak egikaritzeko, eta datu pertsonalak babesteko araudian aurreikusten diren arazoiengatik. Datu horiek azterketa estatistikoetarako erabil daitezke, modu despertsonalizatuan.
4. Ikuskizunen arloko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzak erraztuko du erregistroaren eta ikuskizunen arloko eskumena duten gainerako administrazioen arteko interoperabilitatea.
5. Ikuskizunen arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzak erregistroan inskribatuko du, eta bere gaikuntza eta inskripzioa egiaztatzen dituen txartel profesional bat emango die berak gaitutako pertsonen eta 63. artikulua 1. apartatuko hirugarren paragrafoan ezarritakoaren arabera gaikuntza espezifikoa dutela frogatzen dutenei, baldintza hauek betetzen badituzte:
 - a) Adinez nagusia izatea.
 - b) Europar Batasuneko estatu kideren bateko herritartasuna izatea edota dagokion bizileku- eta lan-baimena edukitzea.
 - c) Aurrekari penalik ez izatea edota ezereztu direla egiaztatzea.
 - d) Indar Armatuen edo Segurtasun Indar eta Kidegoen zerbitzutik kentzeko zehapenik jaso ez izana, segurtasun pribatuko langile gisa jarduteko

gaikuntza behin betiko erretiratuta ez edukitzea, edota aurreko bost urteetan gaikuntza erretiratuta ez edukitzea.

- e) Gutxienez honako titulu hauetatik bat edukitzea: lehen-mailako ikasketen ziurtagiria, eskola-graduatu, derrigorrezko bigarren hezkuntzako graduatu edo erdi-mailako lanbide-heziketa, hezkuntza-administrazioak homologatuta.
 - f) Arau-hausle, egotzitako pertsona edo ikertutako pertsona gisa inolako zehapen-espediente administratibotan edo prozesu penaletan sartuta ez egotea. Egoera horretan ez dagoela adierazten duen zinpeko aitopena aurkeztu beharko du interesdunak.
6. Dekretu honetan gaikuntzari eta erregistroari buruzko ezarritako baldintzak bete gabe onarpen-zerbitzuko langileen eginkizunak betetzen aritu direnak ez dira inskribatuko, egitate horiek egiaztatu eta bost urte igaro arte».

Laugarren artikulua. Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzeko erregelamendua onartzen duen otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuaren 65. artikulua, «*Gaikuntza errebokatzea*», *aldatzea*.

Aldatu dira 65. artikulua 1. eta 2. apartatuak eta 1. apartatuaren c) azpiapartatua, eta 3. apartatua gehitu da. Horrela geratu da idatzita:

«65. Artikulua.- Gaikuntza errebokatzea.

1. Hauek dira gaikuntza errebokatzeako arrazoiak:
 - a) Pertsonen, ondarearen edo osasun publikoaren kontrako delituengatik kondena penal irmoa. Posible da beste gaikuntza bat eskuratzeko, aurreko gaikuntza errebokatzea eragin zuten aurrekari penalak ezereztu ostean.
 - b) Jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legean ezarritako zehapen administratibo irmoa bi falta astun edo oso astun edo gehiago egitegatik urtebeteko epean, dagozkion funtzioak betetzearekin loturik.
 - c) Gaikuntza eskuratzeko eskatutako betekizunak gerora betetzeari uztea, bai eta gaikuntzaren indarraldia amaitu delako eta iraungi baino lehen hura beritu eta inskribatu ez delako ere.
 - d) Ikuskatze-funtzioari traba egitea.
 - e) Beren funtzioetan jardutean indarkeriazko portaera argia izatea.
 - f) Aurreko apartatuaren aurreikusitakoari kalterik egin gabe, onarpen-zerbitzuari dagozkion funtzioak desegoki betetzen dituen argi eta garbi.
2. Errebokatzeak gaikuntza ezabatzea eta, ondorioz, onarpen-zerbitzuko langileen erregistroan baja ematea eta txartel profesionala erretiratzea ekarriko du, eta jakinarazi eta hamar eguneko epearen barruan hura entregatu beharko dio ikuskizunen arloko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzari.

3. Ezin izango da gaikuntza berririk lortu, ezta onarpen-zerbitzuko langileen erregistroan inskribatu ere, errebokatze irmoa egiten denetik bost urte igaro arte.

Gaikuntza berri bat lortzeko, ikuskizunen arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzaren gaikuntza-probak egin beharko dira berriro. dekretu honetako 63. artikuluan 1 apartatuko hirugarren paragrafoan adierazitako berariazko gaikuntzak ez dira onartuko».

Bosgarren artikulua. – Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzeko erregelamendua onartzen duen otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuaren 65 bis artikulua, «Errebokatzeko prozedura», gehitzea.

65. bis artikulua gehitu da. Horrela geratu da idatzita:

«65 bis artikulua: Errebokatzeko prozedura.

1. Ikuskizunen eta jolas-jardueren arloko eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren zuzendaritzak izango du errebokatzeko prozedura hasteko, bideratzeko eta ebazteko eskumena.

2. Prozedura ofizioz, norberaren ekimenez edo goragoko agindu baten ondorioz has daiteke, edo beste organo batzuen eskaera arrazoituaren ondorioz.

3. Espedientearen hasieraren berri emango zaio interesdunari, 15 egun balioduneko epean egoki iriztitako alegazio, agiri eta justifikazio guztiak aurkez ditzan.

4. Prozedura ebazteko epea sei hilabetekoa izango da, hasiera benetan jakinarazten denetik zenbatzen hasita. Prozedurari amaiera ematen dion ebazpenak aurreko artikuluan adierazitako zergatiren bat dagoela ikusi den ala ez adieraziko du eta, beraz, interesdunaren gaikuntza eta erregistroa errebokatu edo mantenduko ditu.

Epea igaro eta ebazpen berariazkorik eman ez bada, ulertuko da ez dagoela errebokatzeko aukerarik eta, beraz, erregistroko gaikuntza zein inskripzioa baliozkoak izango dira aurrerantzean ere.

5. Errebokatzeko espedientea hasten den unean, errebokatzeko prozeduran sartuta dagoen pertsonaren gaikuntza eten ahal izango da. Hala badagokio, kautelazko neurri horrek administrazio-bidearen amaieraraino iraungo du, edo ebazteko epea igaro arte.

6. Ikuskizunen arloko eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren zuzendaritzak espedientea ireki eta ebatzi dela jakinaraziko die udalerriko udalari eta errebokatzea eragin zuten gertakariak gertatu ziren establezimenduaren edo ikuskizun publikoaren edo jolas-jardueraren antolatzailearen titularrari eta, hala badagokio, onarpen-zerbitzuko langile jarduteko gaikuntza eten dela jakinaraziko die.

Establezimendua, ikuskizuna edo jolas-jarduera kontrolatzeko eta ikuskatzeko eskumena duen udalak, errebokatzeko arrazoren bat antzematen badu edo zehapen-prozedura bat hasi badu, ikuskizunen arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzari jakinarazi beharko dio eta onarpen-zerbitzuko langile-gaikuntza errebokatzeko eskatu beharko du.

7. Interesdunak gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango du errebokatze-ebazpenaren aurka, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera».

Seigarren artikulua. Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzeko erregelamendua onartzen duen otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuaren III. Eranskina, «*Ikuskapeneko Helburuak eta Lehentasunak*», aldatzea.

«*Jarduketa lehentasunak*» D apartatuaren 1. azpiapartatua aldatu da. Horrela geratu da idatzita:

«D) Jarduketa lehentasunak.

1.- Administrazio bakoitzak ikuskapenen egutegia programatuko du hemen ezarritako helburu eta lehentasunen arabera. Programazio horiek ekitaldi bakoitzeko urtarrean Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Euskal Kontseiluari bidaliko zaizkio.

Programazioak eredu normalizatu baten arabera aurkeztuko zaizkio Kontseiluari. Eredu hori jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren eskumena duen zuzendaritzaren titularraren ebazpen bidez ezarriko da.

Eredu normalizatua, ikuskapenen kronograma eta aurreko ekitaldian egindako ikuskapenen eta horien emaitzen justifikazio-memoria izango dituen, Kontseiluari bidaliko zaio.

Memoria horiek urtero aztertuko ditu Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Euskal Kontseiluak, eta ez-betetzeak edo jardunbide txarrak hautemanez gero, txosten bat egingo du, eta segurtasun-arloaz arduratzen den Eusko Legebiltzarreko batzordeari bidaliko dio.

2.- Administrazio bakoitzak ezartzen duen programazioa alde batera utzi gabe, lokalak edo instalazioak ikuskatzeko lehentasuna lokalarekin erlazionatutako parametro hauen arabera ezarriko da:

- a) Titulartasuna: lehentasunezko jarduketa titulartasun publikoko lokal edo instalazioetan egingo da.
- b) Edukiera: lehentasunez, edukiera handieneko lokal edo instalazioei eta araubide bereziko establezimenduei helduko zaie.
- c) Jarduera: urtean zehar maiztasun handiagoarekin erabiltzen diren lokal edo instalazioei lehentasuna emango zaie.
- d) Antzinatasuna: lehentasunez, antzinatasun handieneko lokalak edo instalazioak ikuskatuko dira.

3.- Fase bakoitzari dagokion ikuskapen-programazioaren baitan, hauetatik hasiko da: titulartasuna publikoa dutenak, edukiera handiena, jarduera handiena eta antzinatasun handiena, ordena horren arabera.

4.- Ikuskizunen arloko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzak urtero ikuskatuko ditu 700 pertsonatik gorako edukiera duten establezimendu guztiak, baita araubide bereziko establezimenduen lagin garrantzitsu bat ere. Ikuskapen horretarako, Segurtasun Saila udalekin koordinatuko da sinergiak batzeko eta bikoiztasunak saihesteko edo establezimenduetako titularrei karga administratibo gehiegi ez ezartzeko; hala, behar izanez gero, ikuskapenak batera egin ahal izango dituzte edo ikuskapenen programazioak batera planifikatu ahal izango dituzte.

5.- Bikoiztasunak saiheste aldera, ikuskizunen arloko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzak aurrez txostena eginda Udalak baimendutako ikuskizun publikoak eta jolas-jarduerak direnean, udal-administrazioak egingo du ikuskapena,

salbu Udalak Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzaren esku-hartzea edo babesa eskatzen duenean edo bi Administrazioek akordio bat badute ikuskaritza-jarduerari buruz edo ikuskapenak batera egitea programatu badute.

- 6.- 700 lagunetik gorako edukiera duten establezimendu, ikuskizun eta jolas-jardueretan eta araubide bereziko establezimenduetan egindako ikuskapenen aktak administrazio eskudunei komunikatuko zaizkie».

AZKEN XEDAPEN BAKARRA. – Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, XXXXeko xxaren xx(e)(a)n.

Segurtasuneko sailburua
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI

Lehendakaria
IMANOL PRADALES GIL